


Programa zaharrak eskuratzeko...

Abandonware

Aitziber Lasa Iglesias

Elhuyar

Ordenagailua zaharkitua geratu zaizula eta sistema eragilearen kopiari ez duzun ez berriro ere lortu beharrean zaudela? Orduan, lagun bati eskatu, bigarren eskuko dendaren batera joan edo, bestela, *abandonware* orrietara jo. Gehienbat jokoak aurkituko dituzu *abandonware* orrietan, baina egon badaude aplikazioak ere. Gainera, salgai ez dauden aplikazioak eta eskuliburuak lor daitezke debalde.



L. ARTS



L. ARTS

TEKNIKOKI, *ABANDONWARE* SOFTWARE-PIRATERIA DA. Legeari mugatuz gero, abandonatutako softwarea (hortik *abandonware* hitza, hain zuzen ere) erabiltzeak copyright-legea hautsi egiten du. Alegia, lege horren arabera, ezin da programa baten kopiari egin kaleratu duen enpresak copyrighta lortu eta 75 urte igaro arte. Horren aurrean, zenbait ekimen egin dira fabrikatzaileek antzinako zenbait sistema eragile edota programen eskuratzeari erraz dezaten.

Esaterako, arrakasta izan duen ekimen horietariko bat VisiCalc kalkulu-orriaren asmatzaile Daniel Bricklin-ek egin du. Izan ere, bere aplikazioa edonorenzat eskuragarri izan dadin, *Lotus Development*-en baimena lortu zuen eta Interneten sartu zuen. *Lotus*-ek 1985ean erosi zuen VisiCalc, baina gaur egun ezin da inon ere erosi. Alabaina, *abandonware* mugimenduaren esker, behar duenak badu eskuratzeko modurik.

Beraz, *abandonware* mugimenduaren aldekoek esaten dutenaren arabera, *abandonware* ez litzateke pirateriatzat hartu behar. Izan ere, lau urte baino

gutxiago dituzten programak edota oraindik ere salgai daudenak ez dira *abandonware*. Are gehiago, enpresa batek erabakiko balu programa jakin bat berriro ere salgai jartzea, une horretatik bertatik ez litzateke jada *abandonware* izango.

Abandonware-ren historia

Zenbait kasutan konkurrentziaren eraginez, beste zenbaitetan ekoizleak bertsiio berriak atera dituelako edota makina bera desagertuta dagoelako (Atari, Amiga ...), hamaika programa geratu dira baztertuta.

1997ko otsailean Israelgo bi informatikari ohartu ziren ordenagailu zaharkitua zutenek ez zutela programak eskuratzeko biderik. Halatan, lehenengoak, Peter Ringer-ek, Ordenagailu Zahar txoaren Gunea (*Oldie Computer Site*) ezarri zuen eta bigarrenak Joko Klasi-koen Artxiboa (*Classic Gaming Archive*). Berehala elkartu zitzairen jokozale mordoak, eta bakoitzak bere gunea eskaini zuen. Martxoan, indarrak elkar-
tu eta Abandonware Ring Central (gaur egungo Abandonware Ring) ezarri zuen Peter Ringer-ek.

“abandonware
mugimenduari
esker, behar
duenak badu
software zaharra
eskuratzeko
modurik”

Baina espero zitekeena gertatu zen, eta legearekin arazo ugari izan eta itxi ere egin zen gunea. Alabaina, Swizzle ezizenekoak aurrekoaren lekukoa hartu zuen; gaur egun martxan dagoena da horren emaitza.


Zer aurki daiteke abandonware-n?

Eskura daitezkeen jokoan artean Civilization, Doom, Monkey Island, SimCity eta Tomb Raider bezalako joko klasi-koak eta beste asko daude. *The 386 Page*-an IBM OS/2, Microsoft-en MS DOS-en zenbait bertsio, lehenengo Windows-a eta ezezagunagoak diren

Linux Mandrake 8.2 euskaraz

Eusko Jaurlaritzak landutako proiektua izan da eta Elhuyar eta UZEI izan dira itzulpenaz arduratu direnak. Bada, Linux Mandrake 8.2-ren euskarazko bertsioa erabiltzaileen esku dago.

Sistema eragile hori geroz eta zabalduago zegoela eta, euskaratzea erabaki zuen Eusko Jaur-
laritzak. Baldintza itzulpen bateratua izatea zen, eta oinarrizko sistema eragilearen zati garrant-
zitsuenak euskaraz ematea, eta Elhuyarrek eta UZEI-k egin dute, lehen Windows-ekin egin
zuten bezala.



Kultura propioa

Linus Torvalds da Linux sis-
tema eragilearen sortzailea. 1991n Helsinki-ko Unibertsitateko ikasle zenak proiektu moduan landu zuen sistema eragile berri horren hasiera, eta boluntarioen laguntzari esker joan da garatzen Inter-
net bidez.

Linux-en eraginkortasuna batetik, eta bere egonkorta-
suna bestetik, aipatu izan dira askotan sistema horren arrakasta azaltzeko. Baina ez hori bakarrik: hardware desberdinetan lan egiteko ahalmena du Linux-ek, beste sistema eragile batzuek ez bezala.


Askoren ustez, ordea, ez da hau Linux-en arrakastaren oinarri bakarra. Linux munduak filo-
sopia eta kultura propioa ditu. Linux-ek informatikaren kontzeptu berria sortu du: software librea.

Linux-en euskarazko bertsioa


Linux Mandrake 8.2 bertsioa izan da itzulitakoa; Gnome mahaigaina aukeratu da eta Mozilla 0.9.8 nabigatzailea eta Evolution 1.0 postarako aplikazioa ere euskaratu dira. Interneten dago hori guztia, jaitxi nahi duen edonorentzat eskuragarri.

Mandrakeren banaketa normalean euskarazko bertsioa ere egongo da, baina Eusko Jaurlaritzak 2.000 CD kaleratuko ditu hil honen inguruan batez ere eskoletan banatzeko. CD horietan, Mandrakeren euskarazko bertsioaz gain, nola erabili azaltzen duten eskuliburuak ere izango dira.

<http://www.linux-mandrake.com/en/ftp.php3>



L. ARTS



Abandonware-n lor daitezkeen joko baten irudia.

Tandy Deskmate 3.69 edo Quarterdeck DESQview/X 2.1 daude. Bestalde, *21st Century Oldies* (<http://21ct.gooddays.org/apps.html>) izeneko gunean, Windows-erako Apple II-ren emuladorea, Norton Commander, Quicken 3 for Windows, dDatabase 3+ datu-base famatua, Winamp musika-irakurleak edo DOSen

ibiltzeko saguaren *driver*-a daude. Horrelako beste zenbait gune: www.abandonware.com; Apple-ren programa zaharrak eskuratzeko: www.info.apple.com/support/oldersoftwarelist.html